

EH Bildu udal-taldeak aurkeztutako arau-proposamena dagokion Batzordean izapidetu dadin, Iruñeko Udalaren Osoko Bilkuraren Erregelamendu Organikoaren 87. artikularen eta hurrengoen babesean

TOKIKO MERKATARITZA SUSTATU ETA BABESTEKO ORDENANTZA

Zioen azalpena

Tokiko merkataritza, hiriko ekonomiaren parte gisa, ekosistema konplexua da, enpresa eta harreman-ekonomiko zein -sozialez osatua, kale eta plazei lotua, merkatuei, etxeei, hiri-ehunean integratutako guztiei, eta Hiriaren identitateari hertsiki lotua. Tokiko merkataritzaren garrantzia ekonomiaz haratago doa, gizarte-egituratzaile bihurtzeraino. Horregatik jarduera horrek berebiziko garrantzia du hirietan, gizartearen, ekonomiaren, kulturaren, ondarearen zein hiri-jasangarritasunaren ikuspegitik. Horrez gain, tokiko merkataritzak zenbait abantaila ditu beste merkataritza-formatu batzuen aurrean, hala nola irabaziak berriz ere gertuko ingurunean inbertitzea eta banaketa-ziklo motzagoak sortzea. Horrek ingurumen-inpaktu txikiagoa du, eta, ondorioz, kontsumo-eredu jasangarriagoa da. Auzoetako bizigarritasunak hainbateko garrantzia du, eta zuzenean lotuta dago kalean topaketarako guneak eta zerbitzuak egotearekin, non hainbat behar ase baitaitezke. Baina baita lokal irekiak egotearekin ere, gertuko merkataritzakoak, auzoak bizitzaren erdigune nagusi bihurtzen baitituzte. Auzo bziek eragina dute hiriaren bizi-kalitate hobean.

Hala ere, duela zenbait urte, gertuko merkataritzak beste merkataritza-eredu batzuen ondorioak gogorki jasaten ditu, esaterako, azalera handiena edo *online* merkataritzarena. Ondorioz, erdigunean zein gainerako auzoetan hainbat saltokik itxi egin dute. Gertuko ingurunean ditugun merkataritza-guneen dentsitateari begiratuta Europa osoko bigarren hiria gara, $458\text{m}^2/1.000$ biztanleko baititugu. Kopuru hori espainiar estatuarena baino askoz altuagoa da, 320n baitago. Egoera honen aurrean komenigarria da zer jarduketa gauzatu behar diren pentsatzea kontsumo-eredu jasangarria sustatzeko, zeinak gertuko merkataritza indartuko baitu, auzoetan garatu eta errotzen lagunduz.

Merkataritza-mota hau pairatzen ari den higadura handiaren adibide dugu Alde Zaharrean galdu diren merkataritza-establezimenduen: azken 20 urteetan, merkataritza-eskaintzak % 44 egin du behera.

Egoera honek jarduketa-esparru zabala, globala, sendoa eta denboran zehar mantendua behar du. Arrazoi horrengatik, Iruñeko Udalak 2017-2021 aldirako Merkataritzako Plan Estrategikoa egin zuen. Haren barruan zeuden diagnostikoa, azterketa eta urte horietarako Ekintza Plana. Orain Ordenantza honek oinarrizko tresna instituzionalak sortu nahi ditu, merkataritza-mota honen beharrei erantzutea ahalbidetuko diguten jarduketa horiek gauzatzeko, eta aldi berean auzo biziak sustatzeko, baita hiri jasangarriagoa, atseginagoa, abegikorragoa eta irisgarriagoa ere.

Gaur inoiz baino gehiago fokua hirian jarrita lan egin behar dugu, hiri toki bakar eta errepikaezin gisa ulertuta, konplexua bezain sentsiblea den bilbe eta osaera batekin. Hiriek bitxitasuna eta desberdintzapena behar dituzte, bizigarriak, jasangarriak eta erakargarriak izateko nortasuna.

Funtzio horretan paper garrantzitsua dute establezimendu enblematikoek. Jarduera ekonomiko garrantzitsua garatzeaz gain, tokian-tokian aberastasuna sortzen laguntzen dute, lanpostuak sortu eta mantentzen dituzte, inbertsioak erakartzen dituzte, gure memoria kolektiboaren parte dira, garai eta toki jakin batean kokatzen gaituzte, hiriarekin eta auzoekin identifikatzea ahalbidetzen digute eta gure harreman sozialen zati handi bat egituratzen dute. Establezimendu historiko horiek tokiko identitatea eta bitxitasun propioa ematen dizkiote hiri bakoitzari, egun edozein lurraldetan ematen den merkataritza- eta zerbitzu-eskaintzaren homogeneizazio-prozesuaren aurrean, merkataritza-marka berdinekin edonon.

Babes zabala duen gogoeta horrek establezimendu horiek identifikatzeko beharrean ahalegintzea eragiten digu, ezagutza sustatzea eta horien jarraitutasuna helburu duten jarduketak bultzatzea.

1.- Ordenantzaren xedea

Ordenantza honen xedea da tokiko merkataritzak hiriarendako duen garrantzi estrategikoa ezartzea, hura txikizkako merkataritza-lokal gisa ulertuta, eta tresna instituzional sorta bat ezartzea hura sustatu, babestu eta iraunarazteko, eta, zehazkiago, gure establezimendu enblematikoak iraunarazi eta sustatzea ere bai.

2.- Tokiko Merkataritzari babesa emateko, prestakuntzarako eta hedapenerako Bulegoa.

1.- Udal-bulego bat eratuko da gai honen inguruan ezartzen diren neurriak koordinatzeko eta Hiriko tokiko merkataritzari arreta integrala emateko.

2.- Bulegoa elkarteei zein merkatariei zuzendutako prestakuntza-ekintzez arduratuko da ere. Ekintza horiek merkatariei zein elkarteek adierazten dituzten beharrak asetzerantz bideratuko dira, edota Plan Estrategikoak zein Ordenantza honek une oro ezartzen dituzten helburuak betetzera.

3.- Den-dena merkatariei-elkarteekin eta sektorean diharduten entitate espezializatuekin koordinaturik garatuko da, baita Nafarroako Gobernuarekin ere, bikoiztasun oro sahiestuz.

3.- Tokiko Merkataritzaren Behatokia.

1.- Hiriko merkataritza-lokalei buruzko Inbentarioa osatuko da, urtez urte eguneratu daitezkeen estatistika publikoekin, tokiko merkataritzaren eta haren aldaketen errealitatea ezagutzeko xedez.

2.- Estrategia Bulegoak eginen ditu Inbentarioa eta estatistika-datuak, eta Hiriaren Behatoki Orokorren barruan sartuko dira.

4.- Merkataritza-gune edo -ardatz estrategikoen eta merkataritza-gune zaurgarrien mapa.

1.- Hiriko auzoetako merkataritza-ehuna aztertu, jarraitu eta kontrolatze aldera, mapa eta errolda bana eginen dira, auzoz auzo, auzoko merkataritza eta gizarte oinarritik egituratzen laguntzen duten establezimenduekin.

2.- Tokiko merkataritza-ehun hori modu orekatuan eta zuzenean indartzeko xedez, auzo guztiak gutxienez interes handiko merkataritza-gune batez hornitzeko xedez eta gai honen inguruan lehentasuna duten ahaleginak ordenatzeko xedez, mapa horretan definituko dira merkataritza-ardatz estrategikoak eta merkataritza-gune zaurgarriak, jasotako informaziotik abiatuta.

2.- Mapa hori eguneratu eta zabaldu ahal izanen da, merkataritzaren errealitateak arlo horietako bakoitzean eragin ditzakeen eraldaketak oinarri hartuta.

3.- Arlo horiek kontuan hartuko dira hirigintza-planak garatu edo aldatzerakoan eta hiriko mugikortasun-estrategiaren plangintza egiterakoan, baita Iruñeko Udalaren merkataritza-estrategietan eta kulturakoetan ere.

5.- Ezinbesteko merkataritza eta merkataritza-gune zaurgarriak.

1.- Aurreko artikuluaaren ondorioetarako, elkarrekin Hiriaren auzo edo eremu zehatz batean oinarritzeko, gutxieneko eta ezinbesteko gertuko merkataritza-eskaintza bermatzen duten establezimenduen sare bat larriki hondatzeak negatiboki eta modu kezkarria eragiten badio eska daitezkeen gutxieneko hiri-kalitateari, gune hori merkataritza-gune zaurgarritzat joko da eta jarduketa-planak eta merkataritza biziberritzekoak egingen dira.

2.- Udalbatzaren Osoko Bilkurak egingen du adierazpen hori, eta justifikatzen duen txosten batez lagunduko da.

6.- Merkataritza-kate handien ugaritze kaltegarriaren kontrako neurria.

Uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legeak, Nafarroan merkataritza arautzen duenak, merkataritza-establezimenduak jartzeko printzipio gidariak xedatzen ditu, eta libreki ezartzeko askatasunarekin batera, beste hauek jasotzen ditu: Nafarroako udalerrietako hiriguneetan txikizkako merkataritzaren sistemari eustea; merkataritza-jardueren hazkundera harmoniatsua eta orekatua izatea, hiri ingurunean garapen iraunkorra lortzea helburu, eta eskaintzaren eta operadoreen aniztasuna bermatzea, sektore guztietako herritar guztiei ahal diren aukera zabalenak eskainita, bereziki menpekotasun egoeran daudenei.

Merkataritza-kate handiek Hiriko kale edo eremu zehatzetan eragin dezaketen merkataritza-eredu bakarra eta horrek berekin dakarren hiriaren pobretzea saihestea helburu hartuta, benetan dibertsifikatuta dagoen merkataritza-eskaintza galdu ez dadin, eta hiriko eremu horietan merkataritza txikiaren egonkortasuna babesteko edo hura areagotzeko xedez, Udalak eremuak eta kaleak mugatu ahal izanen ditu, eta bertan kate handi horiek ezartzeko mugak izanen dituzte, merkataritza-kate bereko establezimenduen artean distantzia-sistema bat ezarrita.

7.- Merkataritza-irizpideak txertatzea hirigintza-planetan.

Iruñeko Udaleko hirigintza-plan berrietan edo horien berrikuspen orokorretan, eta plan partzialetan edo Hirian hiri-garapen berriak ezartzeko plan berezietan, eskatutako agiri teknikoekin batera txosten tekniko berri bat erantsi beharko da. Bertan lantzen den arloko merkataritzako irizpideak jaso behar dira, eta horiek, besteak beste, Plan Estrategikoak eta Ordenantza honek unean-unean ezartzen dituztenekin bat etorri beharko dute.

8.- Seinaletika bateratua.

Merkataritzarako seinaletika eredu bakarra sortuko da. Honek tokiko merkataritzako alor esanguratsuenak identifikatzen lagunduko du, hala nola merkataritza-gune eta ardatzak eta udal-merkatuak.

9.- Saltokien fatxadak ingurunean txertatzeko ikerketa

Alde Zaharrean jarduten diren proiektugileei justifikazio bat eta saltokien fatxadak ingurunean txertatzeko ikerketa bat eskatuko zaizkie, fatxada horiek mantentzeak kalearen izaera babesten lagunduko duelarik. Dagokion hirigintzako lizentziaren eskaera egiterakoan entregatu beharko da.

10.- Hutsik dauden merkataritza-lokalen errolda, bereziki merkataritza-gune eta ardatz estrategikoetan

1.- Hutsik dauden merkataritza-lokalen errolda publikoa sortuko da, eta merkataritza-ardatzetan edo merkataritza-gune zaurgarrietan dauden zehaztuko da, hala badagokio.

2.- Erroldara sartzen diren lokal huts horien datuek nahikoa izan beharko dute hala izaera orokorreko neurri zuzentzaileak ezartzea ahalbidetzeko nola berariazko neurriak ezartzeko merkataritza-pultsuaren galera-maila kezkarriak antzematen diren tokietan.

11.- Merkataritza-lokalen poltsa ekintzaileendako.

1.- Merkataritza-lokalen poltsa sortuko da, hutsik dauden merkataritza-lokalen eskaintza publikoa sortzeko helburuarekin, bertan negozio berriak sortzeko eta hiriko enpresa- eta merkataritza-jarduera dinamizatzen

jarraitzeko, baita alokairuen prezio altuetan eragiteko xedez ere. Hori guztia Nafarroako entitate lokalen ondasun arautegia onesten duen 280/1990 Foru Dekretuan, urriaren 18koan, ezarritako lege-aurreikuspenekin bat.

2.- Poltsa hau Udalaren edo bere enpresa publikoen ondareko lokalek hornituko dute, eta Nafarroako Gobernuarekin akordioak egin ahalko dira, ezaugarri berdinetako lokalak ere Poltsa horren parte izan daitezen.

3.- Hala nahi duten lokal pribatuak ere sartu ahalko dira, betiere Udalak horretarako ezartzen dituen baldintzak onartzen badituzte.

12.- Establezimendu enblematikoak babesteko katalogoa.

1.- Ordenantza honen ondorioetarako establezimendu enblematikoak – ehun urtetik gorakoak eta bereziak deiturikoak barne– dira bere arkitektura edo dekorazioaren ondare-balioagatik eta Hiri honetako tokiko historia zein kulturarekin duten loturagatik nabarmentzen direnak, biztanle zein bisitari belaunaldi askorendako erreferente eta ikono izanik, eta horrenbestez beste identitate eta bitxitasun elementu bat dira.

Zehazki, hiru betekizun ezartzen dira eta hortaz, hiru kategoriatan sailkatuko dira, betekizun bat, bi edo hirurak betetzen dituzten arabera.

1. Antzinatasuna: 75 urte baino gehiago izatea.

2. Jarduera berezia: "jarduera berezi" gisa hartuko da jarduerak inplikatzeko dituen ezagutzengatik bereizten dena, ezagutza horiek Hiriko kultura tradizionalan esanguratsuak badira edo izan badira, alderdi material, ekonomiko eta sozialez bezainbatean. Establezimendu berezitzat hartuko dira Hiriko merkataritza-iraganaren adierazpen diren guztiak, eta ikertuak izan daitezkeenak artearen historiaren, ekonomiaren historiaren edo zientziaren zein teknikaren historiaren metodologiaren bidez.

3. Babestu beharreko ondare-elementuak dituzten establezimenduak, horiek Iruñeko Udalaren Hirigintza Planaren Katalogoan sartuta, edo jada bertan sartuta daudenak, edo ondare-babes ofiziala dutenak.

2.- Iruña hiria identifikatzen duten ezaugarri batzuk mantentzeko xedez eta establezimendu enblematikoetako jarduera mantentzeko xedez katalogo bat egingen da. Bertan kategorien araberrako sailkapen bat egingen da, aurreko ataleko betekizunen arabera, eta establezimendu

bakoitzarendako fitxa independente bat eginen da, non jasoko baitira babestu nahi diren elementu aipagarriak.

3.- Udalak bereizgarri bat eskainiko die establezimenduei identifikatuak izan daitezen eta erakuts dezaten, eta trataera berezia eta esanguratsua emanen die egiten diren merkataritza- eta turismo-kanpaina instituzionaletan.

4.- Bereizgarria eskuratu eta bi urtez egonen da indarrean, eta berritu ahal izanen da. Saltokiek konpromisoa hartuko dute establezimenduan egindako aldaketa ororen berri emateko baldin eta enblematikotzat hartua izateko eragina badu, eta Udalak arlo horretan abiatzen dituen ekimenekin elkarlanean aritzekoa.

13.- Establezimendu enblematikoak babesteko eta mantentzeko pizgarriak.

1.- Udalak arrazoizko ahaleginak eginen ditu egungo jardunari uzten dioten lokal enblematikoak aktibo mantendu ahal izateko, bertako arkitektura- eta altzari-ondare guztia gordez.

2.- Horretarako establezimendu enblematikoak babestu eta sustatzeko Plan bat eginen da, haien bideragarritasun ekonomikoa laguntzeko erantzunkidetasun-neurriekin, ondarearen zaintza eta egiten dutenaren balio komertziala bermatzeko, eta sortzen diren beharren arabera eguneratuko da.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Ordenantza honetan jasotako aurreikuspenak gehienez ere urtebeteko epean egin beharko dira.

AZKEN XEDAPENA

Uztailaren 2ko Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 326. artikuluan xedatutakoarekin bat, Ordenantza honek ez du ondorio juridikorik sortuko harik eta bere testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta Estatuko nahiz Foru Komunitateko Administrazioek toki-entitateei haien egintzak eta erabakiak ezeztatzeko

errekerimendua egiteko duten ahalmena gauzatzeko ezarritako epea
(hamabost egun baliodun) iragan arte.